

## Ekainaren 6an MUren I. Enplegu eta Formazio Azoka egingo da

2013/05/28

I Enplegu eta Formazio Azoka **ekainaren 6an** egingo da, **15:00etatik 19:00etara**, Goi Eskola Politeknikoaren 11. eraikinean, Garaia berrikuntza gunean dagoena.

### Norentzat eta zertarako

MUk antolatu du I Enplegu eta Formazio Azoka hau lan bila edo goi mailako formazio bila dabilen edozein pertsonarentzat. Azoka mundu guztiari irekita dago, baina MUko ikasleek aukera izango dute hautatutako enpresa batekin elkarriketa pertsonala egiteko, maiatzaren 30a baino lehen hitzordua eskatuz gero orri honetan.

**Azokaren helburuak**, berriz, bi dira:

- Harremanetan jartzea gradudunak eta enpresa zein erakundeak.
- Informazioa eskaintzea bisitariri enpresa eta erakundeetara sarrera errazagoa izateko formazio espezializatuz.

### Azokaren edukia

Azoka lau eremutan banatuko da:

1. **Lan poltsetan izena emateko gunea.** Esparru honetan hainbat estand egongo dira, eta horietako batzuk MUko ikasle eta ikasle ohientzat izango dira. Horrezaz gain, Novia Salcedo Fundazioa eta Infoempleo ere hantxe izango dira.
2. **Enpresa gunea.** Eremu honetan, gutxienez 16 enpresa egong dira, bakoitza bere estandarekin.
3. **Elkarriketa gunea.** Hemen, MUko ikasle eta ikasle ohiek aukera izango dute 5 minutuko elkarriketak egiteko enpresekin, CVak uzten duten neurrian.
4. **Formazio gunea.** Momentuan lanik gabe dauden pertsonentzat edo beraien formazioa garatu nahi dutenentzat.

### Enpresak

Printzipioz, Mondragon Korporazioko kide diren enpresa guztiei zabaldu zaie azokan egoteko gonbita. Horrezaz gain, Mondragon Unibertsitateak harreman duen eta korporaziokoak ez diren hainbat enpresa eta erakunde ere gonbidatu dira. Guztira 16 enpresa baino gehiago espero dira.

**Hezkuntzari lotuta**, etorriko dira Arizmendi ikastola Debagoienetik eta Olabide ikastola eta San Viator Ikastetxea Gasteiztik.

**Komunikazioari dagokionez**, ostera, EITB bertan izango da, Euskal Herriko komunikazio talderik handiena. Baita Hekimen (Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen Elkartea), hau da, EITBtik kanpo dauden euskal hedabideen koordinakundea.

